



EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK KRIMINOLOGIAREN ALORREAN
HIZKUNTZA-ZALANTZA ESPEZIALIZATUAK ARGITZEKO
KONTSULTA-ZERBITZUAK

Miriam UZKUDUN LAZKANO

AURKIBIDEA: I. Sarrera. II. JAGONET, Euskaltzaindiaren kontsulta-zerbitzua. III. EHULKU, UPV/EHUren kontsulta-zerbitzua. IV. AZPIDAZKIren ARGITOKIA kontsulta-zerbitzua. V. DUDANET, IVAPen kontsulta-zerbitzua. VI. Laburpena eta ondorioak.

I. Sarrera

Euskaraz hitz egiten edo idazten dugunean sortzen diren zalantza linguistikoak argitzeko hainbat baliabide dauzkagu sarean: itzulpenak egiteko hiztegiak, sinonimoen hiztegiak, corpusak, hiztegi espezializatuak eta abar. Horien artean, euskararen zalantza espezializatuak argitzeko kontsulta-zerbitzuak dauzkagu. Azken hauei buruz hitz egingo dugu artikulu honetan.

Kontsulta-zerbitzu hauen kudeatzaileek zuzenean erantzuten die euskaraz idazteko eta hitz egiteko garaian sortzen zaizkigun galderari. Hau da, buruan ditugun galdera horien erantzuna eskaintzen digute. Horrez gain, besteek egindako galderak eta haien erantzunak ere eskuragarri daude baliabide hauetan. Hona hemen galdera- erantzunen adibide batzuk:

Galdera: “Bi-biak al dira zuzen eta trukagarri? Azkeneko/azkenengo erabakiekin ados. Azkeneko/azkeneko legearen aldaketa dela medio. E. asko”

Erantzuna: “Biak ez ezik, *azken* forma ere onartzen du Euskaltzaindiak ordinalak adierazteko.”¹

¹ Iturria: DUDANET. URL: <https://www.euskadi.eus/r61-appduda/eu/v50auUdaWar/busqueda/inicio> (2018/12/27an berreskuratua)



Galdera: “Kaixo: Administrazioak kontratatzen dituen zerbitzuak idazteko letra larria ala xehea erabili behar dugu? Nola idatzi behar dugu, Etxez-etxeke Laguntza Zerbitzua ala Etxez-etxeke laguntza zerbitzua? Mila esker.”

Erantzuna: “Euskaltzaindiaren oniritzia duen *Letra larriak erabiltzeko irizpideak* lanaren arabera, erakunde bateko mendeko kudeaketa-organoa bada, zerbitzuaren hitzak larriz hasita idatzi beharko lirateke. Adibidez, Plangintza, Proiektu eta Mantentze Zerbitzua.

Hortaz, Jaurlaritzako sail zehatz bateko zerbitzua bada, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua.

Aldiz, erakunde baten funtzio edo prestazioa aipatu nahi badugu, xehez idatzi behar dugu: etxez etxeke laguntza zerbitzua.

Kasu bietan, *etxez etxeke* hitz elkarketa marra gabekoa da, lehen hitza deklinatuta baitago.”²

Gainera, kriminologiari begira, oso tresna erabilgarriak dira, alor honetako eta beste alorretako zalantza linguistikoak argitzeko balio baitute.

Hauk nola funtzionatzen duten ikuste aldera, [Jagonet](#), [Ehulkuren kontsulta-zerbitzua](#), [Azpidezki](#) eta [Dudanet](#) hartuko ditugu adibide gisa eta hauen funtzionamendua aztertuko dugu.

II. JAGONET, Euskaltzaindiaren kontsulta-zerbitzua

JAGONET konstulta-zerbitzua Euskaltzaindiak kudeatzen du eta herritar guztiei zuzendua dago. Hizkuntza mailako kontsulta interaktiboak egiteko prestatuta dago. Beraz, herritarrek euskararen erabilera orokorrarekin duten edozein zalantzaren erantzuna jaso dezakete baliabide honi esker.

² Iturria: DUDANET. URL: <https://www.euskadi.eus/r61-appduda/eu/v50auUdaWar/busqueda/inicio> (2018/12/27an berreskuratua)

III. Ikasleen ekarpenak



3/9

Kontsulta pertsonalak egiteko aukeraz gain, Jagonet-ek bere orrian eskuragarri du Euskaltzaindiaren Batzordeak aurretik jasotako galdera ohikoenen erantzunen dokumentua. Hurrengo irudian ikus daiteke non dagoen dokumentu hori [deskargatzeko gunea](#):



Behin dokumentu hau deskargatzen dugunean, ikusiko dugu galde erantzun horiek azpiataletan antolatuta daudela, irakurleak errazago aurkitu dezan ea hor dagoen berari momentu horretan gehien interesatzen zaion erantzuna. Hona hemen, adibide gisa, azpiatal horietako batzuen pantaila-irudiak:

Marratxoa (Idazkera)

audio: *audio-liburua, audioliburua, audio liburua; audiometria*

Galdera:

Nola idatzi behar da *audio-liburua, audioliburua* ala *audio liburua*?

Erantzuna:

Audio hitzak oraindik ez dauka batasunik idazkeran; batzuek bereiz, beste batzuk, loturik, eta beste batzuk marratxo batekin idazten baitute: *audio gida, audiogida, audio-gida*, esaterako. Hortik alde batera uzten dira, jakina, *audiometria, audiologia* bezalako hitzak, zeintzuetan *audio* ez den aurrizkia, hitzaren osagai organikoa baizik, eta gu, bereziki, *audio-dokumentu, audio-seinale* bezalakoek ari gara hemen. Horregatik, eta hitzak, berak bakarrik, oraindik autonomia urria duela ikusita, hitz hori bere zerrendetan oraingoz ez aipatzea erabaki zuen Euskaltzaindiak 2014-12-19an. Horrek ez du esan nahi, noski, hitz hori ezin erabil daitekeenik; baina Euskaltzaindiak, era horretako hitzetan, nahiago izaten du denbora pixka bat itxarotea, eta askatasuna uztea, idazleen artean kontsentsu edota erabiltzeko joera nagusia zein den antzeman arte, gehiengoaren aurkako erabakirik ez hartzeko. Beraz, segurenetik, **bideo** hitzarekin gertatu zen bezala, oraindik denbora pixka bat itxaron behariko dugu, datu gehigarri nahikorik eskuratu arte. Bitartean, zerorrek ondoen deritzozun eran idazteko askatasun osoa duzu, zalantzazko era horretan aurkitzen diren gainerako hitzetan bezala.

Data: 20150608

Erantzulea: Xabier Kintana



Atzizkiak (Lexikoa)

Galdera:
Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* ez dira ageri "egoista" eta "egoismo". Beraz, "nirekoi, zeurekoi, berekoi, geurekoi" eta horiei dagozkien "-keriak" ageri direnez, horrela erabili behar ditugu, ezta?

JAGONET. Galde-erantzunak Noiz eguneratua: 2016-03-17

Erantzuna:
Bai, inolako zalantzarik gabe.

Data: 20010709

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna

Galdera pertsonalak egiteko prozesua bestelakoa da Jagonet. Kasu honetan, irudian daukagun pantailaren ezkerreko laukira joan beharko dugu:

Ikus dezakegun bezala, lauki honetan lehenik eta behin aukera ematen digu guk egin behar dugun galderak lehenago erantzunik jaso ote duen ikusteko. Horrez gain, eskaintzen duen beste aukera bat da duda linguistikoekin lotutako gai zerrenda batetik nahi duguna hautatzekoa, eta Euskaltzaindiak ordura arte Jagonet bitartez gai horri buruz jaso dituen galde-erantzunak bistaratzea. Horretarako, laukitxo honetan gaiak aukeratu botoia sakatu beharko dugu eta behin hori eginda, gai zerrenda luze bat zabalduko da eta hortik guk nahi duguna hautatu ahal izango dugu. Aukera bat sakatzean gai horren inguruan Euskaltzaindiak jasotako galderak eta hauen erantzun guztiak ikusi ahal izango ditugu.

III. Ikasleen ekarpenak



5/9

Jagonet galde-erantzunak ^

Begiratu zure galderari lehendik erantzun ote zaion:

Bilatu

Gaiak v

Gaia aukeratu v

Ikus halaber v

Jagonet deskargatu 📄 >

Egin zure galdera v

Galdera egin

Gaia aukeratu

Lexikoa

- Aditzaren ingurukoak
- Aditzen erregimena
- Atzizkiak
- Marratxoak
- Zernahi

Morfologia

- Aditzaren ingurukoak
- Data
- Deklinabidea
- Erdarazkoen ordainak
- Sintagmaren ingurukoak
- Bakiak
- Zernahi

Onomastika

- **Leku-izenak**
- Erreterienak eta deiturak
- Zernahi

Sintaxia

-- Leku-izenak

ONOMASTIKA / LEKU-IZENAK - JAGONET + Ikus halaber

18 emaitza Onomastika / Leku-izenak bilaketarentzat

Erreteria, Orereta, Fanderia... +

Galdera:

Zein da nire herriaren benetako izena, Erreteria ala Orereta? Nik beti Erreteria aditu dut, baina iragarki bat dago testu honekin: *Orereta da gure herriko izena*. Egia al da hori?

Bakio udalerria, Bakioko udalerria; Bilbo hiria, Bilboko hiria +

Galdera:

Zuzena al da *Bakio udalerria, Bilbo hiria* eta abar esatea, edo *Bakioko udalerria, Bilboko hiria* osorik esan behar da beti?

Bilbo/Bilbao, Areatza/Arenala +

Galdera:

Zein da euskal hiri nagusiaren izena euskaraz: Bilbo ala Bilbao? Bestetik, jakin nahi nuke Bilboko San Nikolas elizaren ondoan dagoen pasealekuari zelan deitu behar zaion, "Arenala" ala "Areatza".



Bestalde, Euskaltzaindiaren Batzordeak aurretik jasotako galdera ohikoenen erantzunen dokumentua deskargatzeko beste gune bat ere eskura dago laukitxo honetan.

Azkenik, gure galderak egiteko gunea ere badago bertan. Hurrengo irudiek erakusten duten moduan, “galdera egin” jartzen duen gunean klik egin behar dugu eta zabaltzen den orriko formularioa bete beharko dugu (tartean mezua, hau da, gure galdera, idatziko dugu).

III. Ikasleen ekarpenak



6/9

Jagonet galde-erantzunak ^

Begiratu zure galderari lehendik erantzun ote zaion:

Idatzi bilatu nahi duzuna

Bilatu

Gaiak v

Gaia aukeratu v

Ikus halaber v

Jagonet deskargatu 📄 >

Egin zure galdera v

Galdera egin

Ondorengo irudian ikus daitekeen moduan, formulario honetan gure izen-deiturak, lan egiten dugun enpresa edo erakundearen izena, gure helbidea, posta kodea, herria, helbide elektronikoa, telefonoa, egin nahi dugun galdera eta azkenik bertan hitzez adierazita dagoen irudia aukeratzeko eskatzen zaigu. Azken eremu hau mezu automatikoak ekiditeko eremu bat baino ez da. Bestalde, esan behar ra dago ez dela beharrezkoa eremu hauek guztiak betetzea; izartxo gorri batez markaturik daudenak dira derrigorrez bete behar direnak.

Jagonet galde-erantzunak ^

Begiratu zure galderari lehendik erantzun ote zaion:

Idatzi bilatu nahi duzuna

Bilatu

Gaiak v

Gaia aukeratu v

Ikus halaber v

Jagonet deskargatu 📄 >

Egin zure galdera v

Galdera egin

Norekin jarri nahi duzu harremanetan?

Jagonet v

Izen-deiturak *

Enpresa/Erakundea

Helbidea

Posta-kodea

Herria *

Helbide elektronikoa *

Aukeratu biltzaia: 🌞 🌙 🌧️ 🌨️ 🌪️ 🌩️ 🌩️ 🌩️ 🌩️

BIDALI



Azalpena amaitzeko, honek ematen digun zerbitzua zuzenago ikusteko galdera-erantzun baten adibide dugu hurrengoa:

Galdera: “Berridazketa bat egiterakoan, ondorengo zalantza hau sortu zait: Zenbaitek droga legeztatzea ez du bidezkoztat jotzen esaldia berridazterakoan, Zenbaitek droga legeztatzeari ez bidezko deritzo idatzi nahi izan dut. Badakit arazoa konpontzeko aukera dudala ez bidezko horren ordez gaizki jarrita, baina jakin nahi nuke ea zuzena den ez bidezko erabiltzea.”

Erantzuna: “Zuk erabili nahi duzun Zenbaitek droga legeztatzeari ez bidezko deritzo esaldia zuzena da (agian, egokiago honela: Zenbaitek ez deritzo bidezko droga legeztatzeari). Zuzena izateaz gainera, gaizki hitzarekin baino samurragoa da horrela, zalantzarik gabe. Baina jakizu, hala ere, ez bidezko eta gisakoak ahalik eta gutxien erabili behar direla. “

Data: 2001/05/08

Erantzulea: Joxe Ramon Zubimendi, JAGONETen arduraduna³

Kriminologiako profesionalen egunerokoan erraz ager daitezke hizkuntzaren erregistro zainduari buruzko zalantzak, beraz, oso baliagarria izan daiteke tresna hau ziurtatzeko hauen testuetan ez daudela ortografia edo gramatika akatsak.

III. EHULKU, UPV/EHUren kontsulta-zerbitzua

Kontsulta-zerbitzu hau Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) kudeatzen du, eta bertako ikasleei zuzenduta dago. Hau da, bertako ikasleei euskarazko irakaskuntzan jardutean sortzen zaizkien hizkuntza zalantzei erantzuteko pentsatua dagoen zerbitzu bat da. Kontsulta-zerbitzu honek ere aukera desberdinak eskaintzen dizkigu gure zalantzak argitzeko garaian. Lehenik eta behin EHULKUren kontsulta-zerbitzua Google-n idaztean lehenengo ateratzen zaigun aukeran klik egin beharko dugu eta ondorengo orrialdean goialdean urdinez dagoen “SARTU” sakatu. Hona hemen irudietan orain arte azaldutakoa:

³ Iturria: JAGONET. URL: <https://www.euskaltzaindia.eus/component/jagonet/?view=faq&Itemid=423> (2018/12/27an berreskuratua)

III. Ikasleen ekarpenak



Google ehuku

EHULKU

Galde-erantzunak Testu-zuzenketak Bilatzaleak Kontsultaguneak EHULKUren aholkuak: Zer da EHULKU? UPV/EHU'n euskararen erabilera zuzena eta egokia ...

www.ehu.eus > web > euskara > ehuken-aholku-guzt...
EHULKUren aholku guztiak - Euskararen eta Etengabeko ...
 EHULKUren aholku guztiak (ordena kronologikoan) ... pps / pdf, EHULKU (2006-03-23) pps / pdf, Suposatu (I) (2006-03-30) pps / pdf, Hipotesia (2006-04-05)

www.ehu.eus > web > euskara > ehuken-aholku-guzt...
EHULKUren aholkuak ordena alfabetikoan - Euskararen eta ...
 ... [O] [P] [R] [S] [T] [U] [V] [W] [X] [Y] [Z] [EHULKUren aholkuak ordena kronologikoan].
 OHARRA: (*) marka duten egiturak egitura okerrak dira: [(*) aurrekalde]. A ...

Bertan klikatutakoan hainbat aukera agertuko zaizkigu pantaila berrian. Lehenengoak, *galde-erantzunak* izena duenak, hain zuzen, hiru erabilera desberdin ditu: guk egin nahi dugun galdera lehenago egin dagoen bilatzeko, ordura arte egindako galdera guztien zerrenda bistaratzeko eta gure galdera egiteko

EHULKU Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza

Menua

GALDE-ERANTZUNAK
TESTU-ZUZENKETAK

Zer da EHULKU?
Zer da Galde-erantzunak?
Zer da Testu-zuzenketak?
Laguntza

Oharrak

EHULKU UPV/EHU'n euskararen erabilera zuzena eta egokia bultzatzeko zerbitzua da. Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak sustatua.

ehuku.ehu.eus/EHULKU/moduluak/galde_erantzunak/GaldeErantzunak.v2.aspx?id=56

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza

Galde-erantzunak

Idatzi bilatu nahi duzun gako-hitza edo hitz-sekuentzia: zuzenbide Egin zure galdera

Aurkitutakoak: 3

Gako-hitzak	Galdera	Erantzuna	Galdera mota
<input type="button" value="Ikusi"/> interino: bitarteko irakaslea; profesori interino	'Profesor interino' adierazteko EHU'n 'behin-behineko irakasle' esapidea erabili izan da. Baina beste arlo batzuetan (lan-zuzenbidean) esapide horren bidez "eventual, temporal, provisional" adierazteko proposatu da (ik. EuskaTerm). Zer deritoxue 'bitarteko irakasle' ordainari?	Beharbada bai, beste hitzegtian egin den proposamenarekin bat egitearren. Baina polikiago aztertu behar da nola eman esapide horren ordaina.	espezialitateko erabilera okorra
<input type="button" value="Ikusi"/> el efecto que una variación en el precio del petróleo tiene en el precio del transporte	Nola itzuliko zenuke "el efecto que una variación en el precio del petróleo tiene en el precio del transporte"? Zein desberdintasuna dago "efektu", "ondorio", "oihartzun" eta "eragin" hitzen artean?	'Petrolioaren salneurriaren aldatzea batek garraioaren prezioan duen eragina/ondorio' 'Petrolioaren salneurriaren aldatzea bat gertatzeak garraioaren prezioan duen eragina/ondorioa' 'Efektu' kiroletarako eta fisikarako (berotegi efektua) proposatzen du Zahazki hitzgiak. Zuzenbidean ere erabiltzen da. 'Ondorioa' kausa baten ondoriozkoa da, 'consecuencia' ren ordaina; 'oihartzuna', berriz, metaforikoki erabilia da, gertaera bat nonbait islatzen dela adierazteko; eta 'eragina' da 'efektu' ren ordain sakatsua. Dena den, testuinguruaren arabera, sinonimoak gerta daitezke hitz horiek.	espezialitateko erabilera okorra

Zuzenbidean, hitzak gaztelaniatik itzulterakoan, sarri

III. Ikasleen ekarpenak



Hona hemen erabiltzaile batek egindako galdera baten eta haren erantzunaren adibidea:

9/9

Galdera: “Nola dago ondo hurrengo esaldia? urte askotan egon naiz kartzelan edo urte askoan? Zein da ezberdintasuna?”

Erantzuna:

“-Zenbat denbora? galderari erantzuten dio URTE ASKOAN-ek. Denbora-kantitate bat adierazten du.

-Zenbat urtetan? galderari erantzuten dio URTE ASKOTAN-ek. Urte kopurua adierazten du, eta urteek ez dute zertan izan segidakoak. (1986-88-89-92..., urte askotan izan naiz oporretan Italian; agian astebete besterik ez dut igaro urte bakoitzean; urte askoan izan banaiz Italian, ordea, esan nahi du denboraldi luze bat egin dudala herrialde hartan)”⁴

Era berean, Euskara Zerbitzuak irakasleen eta ikasleen testuetan egindako zuzenketa ohikoenak ere kontsulta litezke datu-base honetan.

The screenshot shows the EHU's Euskara Zerbitzuak website. At the top, there is a search bar with the text "Idatzi bilatu nahi duzun gako-hitza edo hitz-sekuentzia:" and a "Bilatu" button. Below the search bar, there is a table titled "Testu-zuzenketa guztien zerrenda" with 4 columns: "Gako-hitzak", "Zuzentzekoa", "Zuzendua", and "Zuzenketa mota". The table contains 4 rows of data, each with a blue "Ikusi" button in the first column.

Gako-hitzak	Zuzentzekoa	Zuzendua	Zuzenketa mota
Ikusi desberdini; ezberdini; diferentias	1) Aldi desberdinen aurkezpenak 2) Eraikuntza modu desberdinak	1) Aldi bakoitzaren aurkezpenak / Aldien aurkezpenak Bana-banako aurkezpenak / Kasuan kasuko aurkezpenak 2) Eraikuntza modu bakoitza / Eraikuntza moduak	hizkuntza-araua
Ikusi bezalako; antzeko; bestek besta; hala nola; como	Altzairua eta hormigoia bezalako eraikuntza material berriekin	Zenbait eraikuntza-material berriekin, hala nola altzairuarekin eta hormigoiarekin. Zenbait eraikuntza-material berriekin; esate baterako , altzairua eta hormigoia.	hizkuntza-araua
Ikusi beranti; berantiar; tardio/a; Erdi Aro berantiarra; *berant Erdi Aroa	Berant Erdi Aroan (...)	Erdi Aro berantiarrean (...)	hizkuntza-araua
Ikusi bere aldetiki; berriz; por su parte	XIX. mendeko industrializazioak, bere aldetik , hiri moderno handiak eratuz ia konponezinezko arazoak pilatu ditu.	XIX. mendeko industrializazioak, beriz , hiri moderno handiak eratuz ia konponezinezko arazoak pilatu ditu.	hizkuntza-araua

⁴ Iturria: EHULKUREN kontsultagunea. URL: <http://www.ehu.es/ehulku/orokorra/sarrera.asp> (2018/12/27an berreskuratua)

III. Ikasleen ekarpenak



Zerbitzu honek duen atal interesgarri eta erabilgarrienetako bat, ordea, EHULKUren AHOLKUAK deiturikoa da. Bertan ematen baitira ohiko zalantzak eta akatsak zuzentzeko jarrabide didaktikoak. Aholkuak bi modutara kontsulta daitezke: argitaratze-dataren arabera, edota gaiaren arabera. Hurrengo pantaila-irudietan ikusten da nola agertzen zaizkion erabiltzaileari aholkuak bi aukera horien arabera antolatuta.

EHULKUren aholku guztiak (ordena kronologikoan)

komun/komunean (2006-02-09)	komun/amankomun (2006-02-16)	Zenbait aditzen erregimena: behar izan (2006-02-23)	eman/gertatu (2006-03-02)
pdf	pdf	pdf	pdf
Zer berri... (2006-03-09) pps / pdf	Suposatu (I) (2006-03-16) pps / pdf	EHULKU (2006-03-23) pps / pdf	Suposatu (II) (2006-03-30) pps / pdf
Hipotesia (2006-04-05) pps / pdf	Suposatu (III) (2006-04-27) pps / pdf	Zenbakiak (I) (2006-05-03) pdf	Suposatu (IV) (2006-05-11) pps / pdf
Zenbakiak (II) (2006-05-18)	Suposatu (V) (2006-05-25)	TZDB (2006-06-01)	-e-z/-etaz (2006-06-08)

EHULKUren aholkuak ordena alfabetikoan

[A] [B] [C] [D] [E] [F] [G] [H] [I] [J] [K] [L] [M] [N] [O] [P] [R] [S] [T] [U] [V] [W] [X] [Y] [Z]

[EHULKUren aholkuak ordena kronologikoan]

OHARRA: (*) marka duten egiturak egitura okerrak dira: [(*) *aurrekalde*].

A

- a **itsatsia**
 - hitza elkartuetan
 - eta mugagabea
- abar (eta abar)
- aditz arazleak: *arazi*
- aditz laguntzailea: aditz laguntzaileak isiltzea
- aditzen erregimena [da / du / dio]
 - balio izan, bira(tu), iraun, itxaron, kosta(tu), lagun(du), merezi izan
 - ekin, eraso, euts(i), hei(du), utz(i), ora(tu)
 - jarraitu
- aditz-izena
- aditzoinak
- agian
- agian: nahia edo itxaropena adierazteko partikula
- agin(du): -TZEKO/-TZEA
- agur(tu)
- ahal: nahia edo itxaropena adierazteko partikula (ahal ≠ ai)
- ahal izan / ezin izan

EHULKU Kriminologiako eta Zuzenbideko irakasle eta ikasleei ere zabalik dago. Egia da Kriminologiari buruzko zalantza asko ez daudela datu-baseetan, baina bai kriminologoei interesa dakizkien gaien buruzkoak: soziologia, psikologia, zuzenbidea...



III. AZPIDAZKIren ARGIRO kontsulta-zerbitzua

Kontsulta-zerbitzu hau ere, aurretik aipatutakoaren modura, Euskal Herriko Unibertsitateak kudeatzen du, baina kasu honetan, ez dago bertan ikasten dutenei zuzenduta. Azpidazki EHUKo Administrazioiko eta Zerbitzuetako Pertsonalari laguntzeko prestatuta dago; hau da, azken hauek euskaraz lan egitean sortutako zalantzak kontsultatzeko balio du. Kontuan izanda kriminologoek ere askotan erakunde publikoetan eta erakunde publikoentzat lan egiten dutela, tresna hau oso baliagarria gerta daiteke kasu horietan bereziki.

Erabilerari begira, oso baliagarria da tresna hau, izan ere, aukera ematen du bilatzailean hitz bat jarri eta horri buruz iturri linguistiko desberdinetako (hiztegiak, itzulpen-memoriak etab.) erantzunak jasotzeko. Aukera horien artean argitokia dugu; honi esker begiratu dezakegu ea guk egin nahi dugun galdera aurretik eginik dagoen, eta beraz, erantzuna jaso duen jada. Bilaketa egin aurretik guk geuk aukera dezakegu ea iturri horietako zein den guk jaso nahi dugun erantzuna jasotzea ahalbidetuko duguna. Hona hemen, irudiz irudi, eskaintzen diren baliabideen erakusketa laburra:



Horretaz gain, ikus dezakegun bezala, pantailaren ezker aldean beste aukera batzuk ere eskaintzen dizkigu tresna honek: trebakuntza pilulak, datak eta orduak nola idatzi, zenbakiak testuz idatzi eta xuxen. Hauek ere oso erabilgarriak dira euskararen inguruko zalantzak argitzeko, eta batez ere, kalitatezko testuak egiteko.



Hona hemen irudietan lau aukera horietan bilatzeko bete behar dena: Trebakuntza Pilulak (hizkuntzari lotutako gai orokorren zerrenda bat ematen digu, eta horietako bakoitzean klikatzean, bakoitzari buruzko azalpen eta xehetasunak zabaltzen dira):



Datak eta orduak nola idatzi:

The screenshot shows the 'AZP idazki' web application interface. At the top, there is a blue header with the logo and university information. A 'Menua' button is on the left, and a 'zer da azpidazki' button is on the right. The main content area is titled 'Datak eta orduak nola idatzi'. It contains two sets of input fields: the first set for 'Urtea' (Year), 'Eililabetea' (Month), and 'Eguna' (Day), with 'Ados' buttons; the second set for 'Ordua' (Hours) and 'Minutuak' (Minutes), also with 'Ados' buttons.

Zenbakiak testuz idatzi:

The screenshot shows the 'AZP idazki' web application interface. At the top, there is a blue header with the logo and university information. A 'Menua' button is on the left, and a 'zer da azpidazki' button is on the right. The main content area is titled 'Zenbakiak testuz idatzi'. It contains a single text input field labeled 'Zenbakia:' and an 'Ados' button.

Xuxen:

The screenshot shows the 'AZP idazki' web application interface. At the top, there is a blue header with the logo and university information. A 'Menua' button is on the left, and a 'zer da azpidazki' button is on the right. The main content area is titled 'Xuxen.eus'. It contains a large text input field labeled 'Testua:'.



Hona hemen AZPIDAZKIren kontsulta-zerbitzuak (argitokiak) emandako galdera baten erantzuna:

Galdera: “Alkoholaren eta drogen eraginak (...) que son la primera causa de muerte entre los jóvenes.”

Erantzuna: “Zuk aipatu diguzun esaldi hori era askotara itzul daiteke:

- Gazteen heriotza eragile nagusiak dira.
- Gazteen heriotza-arrazoi nagusiak dira.
- Gazteen heriotza-kausa nagusiak dira.”⁵

IV. DUDANET, IVAPen kontsulta-zerbitzua

DUDANET Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak (IVAP) kudeatzen du eta herritarrei eta erakundeei zuzenduta dago. Deskribituko dugun azken kontsulta-zerbitzu honek administrazio- eta lege-arloko hizkerarekin eta terminologiarekin lotutako galderei erantzuten die.

Funtzionamenduari erreparatuz, nahikoa erraza da erabiltzen eta gainera, dudaren bat baldin badugu honi buruz bertan ongi azalduta agertzen da nola erabili behar dugun. Kontsulta-zerbitzu honek bi zerbitzu nagusi eskaintzen dizkigu: lehenengoa, guk egin behar dugun galderak lehenago erantzuna jaso ote duen ala ez bilatzen laguntzen diguna da (horretarako “dudaneten bilatu” sakatu behar dugu); eta bigarrena, aldiz, gure galdera egitea ahalbidetzen diguna. Hori bai, azkeneko hau egin ahal izateko erregistratu egin behar dugu nahitaez (horretarako “dudaneten erregistratu” sakatu behar dugu). Hona hemen irudi argigarri batzuk:

⁵ Iturria: AZPIDAZKI.URL: <http://azpidazki.ehu.eus/azpidazki/moduluak/zalanet/galdegilea/bilatugaldere.v2.aspx?id=8&locale=eu-ES> (2018/12/17 an berreskuratua)

III. Ikasleen ekarpenak



15/9

Nola erabili DUDANET?

DUDANETek galdera-erantzunen datu-base zabala dauka dagoeneko; beraz, orain arte bildutako informazioa kontsultatu nahi izanez gero, **DUDANETen bilatu** atalean sakatu besterik ez duzu.

DUDANETen bilatu atalean zuk nahi duzun informazioa aurkitzen ez baduzu, **DUDANETen erregistratu** atalera joan behar duzu. Atal horretan, erregistratu egin behar duzu galdera egin ahal izateko. Behin atal horretako datuak emanda, DUDANETek erabiltzaile-izena eta pasahitza bidaliko dizkizu, eta handik aurrera identifikazio-datu horiek baino ez dizkizu eskatuko galdera egiteko.

Galderak banan-banan egin behar dira, galdera-erantzunak behar bezala erregistratuta gera daitezten, eta datu-basean bildutako informazio guztia kontsultatzeko moduan egon dadin.

Termino jakin baten gaineko galdera eginez gero, komeni da testuingurua azaltzea, DUDANET zerbitzuaren erantzunaren kalitatea bermatzeko.

Administrazio- eta lege-arloko hizkera eta terminologia lantzeaz gain, DUDANETek esaldi laburrak (gehienez ere 140 karakterekoak) itzultzeko zerbitzua ere eskaintzen du.

Testu luzeagoak itzuli nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialarekin (IZO), helbide honetan: izo@ivap.eus

Nola erabili DUDANET?

DUDANETek galdera-erantzunen datu-base zabala dauka dagoeneko; beraz, orain arte bildutako informazioa kontsultatu nahi izanez gero, **DUDANETen bilatu** atalean sakatu besterik ez duzu.

DUDANETen bilatu atalean zuk nahi duzun informazioa aurkitzen ez baduzu, **DUDANETen erregistratu** atalera joan behar duzu. Atal horretan, erregistratu egin behar duzu galdera egin ahal izateko. Behin atal horretako datuak emanda, DUDANETek erabiltzaile-izena eta pasahitza bidaliko dizkizu, eta handik aurrera identifikazio-datu horiek baino ez dizkizu eskatuko galdera egiteko.

Galderak banan-banan egin behar dira, galdera-erantzunak behar bezala erregistratuta gera daitezten, eta datu-basean bildutako informazio guztia kontsultatzeko moduan egon dadin.

Termino jakin baten gaineko galdera eginez gero, komeni da testuingurua azaltzea, DUDANET zerbitzuaren erantzunaren kalitatea bermatzeko.

Administrazio- eta lege-arloko hizkera eta terminologia lantzeaz gain, DUDANETek esaldi laburrak (gehienez ere 140 karakterekoak) itzultzeko zerbitzua ere eskaintzen du.

Testu luzeagoak itzuli nahi izanez gero, jar zaitez harremanetan Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialarekin (IZO), helbide honetan: izo@ivap.eus

Behin DUDANETen bilatu sakatzen dugunean honako pantaila hau aterako zaigu:

Ikus daitekeen moduan bilaketa aurreratua egiteko aukera ere ematen du Dudanetek, gako hitzak, eremuak etab. hautatzea posible baita.

III. Ikasleen ekarpenak



16/9

“Dudaneten erregistratu” botoia sakatzerakoan, berriz, ondorengo pantailan formulario bat agertuko zaigu eta bertan dauden eremuak bete beharko ditugu, azkenik bidali sakatuz. Izartxo markaturik dauden eremuak nahitaez bete beharrekoak dira. Hona hemen aipatutako formularioaren irudia:

Azalpena amaitzeko, bertan erabiltzaile batek egindako galdera baten eta hark jasotako erantzunaren adibide bat dugu ondorengo:

Galdera: “Esaldi honetan, "Antonioren hil nahi izatearen" ondo jarrita dago? Egun batean, Antonio jaunak bere zerbitzuak eskatuko ditu eta Anak sekulako dilema moralari aurre egin beharko dio, Antonioren hil nahi izatearen benetako arrazoiak zeintzuk diren jakiten duenean.”

Erantzuna: “Egitura zuzena da, eta zentzuzko esanahia dauka esaldiaren baitan.”⁶

⁶ Iturria: DUDANET.URL: <https://www.euskadi.eus/v50auUdaWar/busqueda/inicio> (2018/12/27an berreskuratua)



V. Laburpena eta ondorioak

Ikusitagoagatik, esan beharra dago kontsulta-zerbitzu hauek nahiko erabilera erraza izateaz gain, laguntza handia eskaintzen duten tresnak direla euskarari begira. Eta horretaz gain, kriminologiako zalantza linguistiko espezifikoak argitzeko ere aparteko tresnak dira, galderak pertsonalizatuak baitira. Horretaz gain, jarraibide batzuk emate aldera, aipatzekoak dira hurrengo hauek:

- Euskara zainduarekin zerikusia duten zalantza orokorrak badituzu, gauza sinpleenak AZPIDAZKIn argitu ahal izango dituzu edo, bestela, JAGONETera jo.
- Unibertsitateko ikasle bezala, zalantza linguistikoak argitzeko EHULKUren kontsulta-zerbitzura jotzea izango litzateke aukerarik egokiena.
- Administrazio- eta lege- arloko hizkerarekin zerikusia duten zalantzak argitzeko DUDANET kontsulta-zerbitzu baliagarria da.